

16. FITXA Landa-inguruneetan bulegoak sortzeko 2021eko Acelera Pyme laguntzen deialdia

Norentzat:

- d.1) Hainbat udalerrri biltzen dituzten eskualdeak zein erakundeak.
- d.2) Udalerrien mankomunitateak.

Sarbide-esteka: red.es Sede Electrónica

Eremuak: Landa-inguruneetarako Acelera Pyme Bulegoak (APB)

Zenbatekoa:

Proiektu bakoitzerako eskatutako laguntzaren **gutxieneko zenbatekoa 300.000 €-koa** izango da, eta **gehienekoa 410.000 €-koa**. Zenbateko hori **diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren %80** izango da gehienez ere. (Norgehiagoka bidez).

Aurkezpen-amaiera data: 2022ko otsailak 22 (23:59h arte)

Laburpena

Deialdiaren helburua **landa-inguruneetan Acelera Pyme bulego-sarea sortzea eta sendotzea** da, Acelera Pyme programaren barruan, Espainiako enpresek (sortu berriak barne), eta batez ere enpresa txiki eta ertainek, autonomoek eta ekintzaileek teknologia berriak barnera ditzaten bultzatzeko.

APBak guneko fisikoak eta birtualak izango dira; erabiltzaileek eraldaketa digitaleko prozesuetan dituzten zalantzak argituko dituzte guneko horietan eta gunek, halaber, sentsibilizazio eta laguntza-ekintzak garatuko dituzte erabiltzaileei laguntzeko.

Deialdi hau aurkezteko, Infoday bat egingo da urtarrilaren hasieran, saioa birtuala zein aurrez aurrekoa izango da (RED.Es-en bulegoetan). Oraindik ez da data zehaztu, baina deialdia bidaliko da.

Onuradunak

- a) Lanbide-elkarteak eta enpresa-elkarteak.
- b) Elkargo profesionalak.
- c) Teknologia-zentroak eta teknologia-berrikuntzari laguntzeko zentroak.
- d) Probintzietako Diputazioak, Probintzia bakarreko Autonomia-erkidegoak, Uharteetako Kabildoak eta Kontseiluak.

d.1) Hainbat udalerrri biltzen dituzten eskualde zein erakundeak.

d.2) Udalerrien mankomunitateak.

Proiektuen ezaugarriak

- a) Acelera Pyme Bulegotzat (aurrerantzean "APB") hartzen dira lurraldean zehar banatutako **espazio fisiko bat edo gehiago** duten eta Espainiako enpresak (sortu berriak barne) sentsibilizatzeko eta laguntzeko lan egiten duten **espazio birtualak**.
- b) **Bulego fisikoek APBak bere jarduera egiten duen lurraldean kokatuta egon beharko dute**, eta kokapen fisiko bat baino gehiago izan dezakete lurraldeko hainbat tokitan.
- c) APBaren jarduera-lurraldea probintzia hartzen duen eremu fisikoa izango da, berezko kabildo edo uharte-kontseilua duten uharteetako autonomia-erkidegoen kasuan izan ezik; horientzat lurraldea osatzen duten uharteetako bakoitzak hartzen duen espazio fisikoa izango da bulegoaren eremua.
- d) Aurkeztutako proiektuek **eskabidean hautatutako lurraldean eskainiko dituzte zerbitzuak**.
- e) Erabiltzaileek **teknologia berritzaileak barneratzeko** prozesua bultzatzeko ekintzak lagunduko dira. Ez da prestakuntza-ekintzarik diruz lagunduko.
- f) Ebatzitako kontsultetatik ateratako ondorioak online euskarri irisgarri batean bildu beharko dituzte bulegoek, interesa izan dezakeen edozein ETEk eskura izan ditzan. Horretarako, jasotzen dituzten gaiak kudeatzeko **baliaibide egokiak jarri beharko dituzte, bai aurrez aurrekoak bai birtualak**.
- g) APBek **haiek eskainitako zerbitzuen erabiltzaileen erregistro digitalizatua** eraman beharko dute. Erregistro horretan, erabiltzaileen identifikazio-datuak jasoko dira, bai eta parte hartu duten jarduketan datuak ere.
- h) APBek **aholkularitza-zerbitzua emango diete erabiltzaileei** enpresa-garapenerako eta eraldaketa digitalerako laguntza nazionalak, autonomikoak eta tokikoak eskatzean.
- i) Proiektuek **jarduera-lerro hauek** bete beharko dituzte:
 - a. APBak abian jartzea: bulegoa martxan jartzeko beharrezkoak diren jarduerak.
 - b. Teknologia eta prozesuak bereganatzearekin lotutako edukiak sortzea, zabaltzea eta haien balioa nabarmentzea.
 - c. Talde-jarduerak, hala nola enpresa txiki eta ertainak metodologia eta teknologia berritzaileen inguruan sentsibilizatzeko eta haiek euren ekoizpen eta kudeaketa-prozesuetan sar ditzaten laguntzeko (mintegiak, tailerrak, etab.).
 - d. Aholkularitza eta euskarria eskaintzea eraldaketa digitalaren arlo nagusietan.
 - e. Eskaintza teknologikoa dagoen eskariarekin konektatzea ahalbidetzen duten talde-jarduerak (networking-saioak).
- j) **Jarduerak eta gaiak erabiltzaileen heldutasun-mailara egokitu beharko dira**, antolaturiko sentsibilizazio-jarduerak hazkunde-egoera goiztiarrean dauden enpresek (sortu berriak barne), zein negozio-eredu finkatuak dituztenek aprobetxa ditzaten.
- k) Bulegoak egingo dituen **aurrez aurreko jarduerak 20.000 biztanletik beherako udalerrietan egingo dira**. APBak proposatzen dituen **talde-jardueren % 60, gutxienez, aurrez aurreko modalitatean edo modalitate mistoan** egin beharko dira, ezinbesteko arrazoiak dauden kasuetan izan ezik.
- l) **APBek eskaintzen dituzten zerbitzu guztiak doakoak izango dira erabiltzaileentzat**; ezin izango da diru-laguntzarik jaso diruz lagundu daitezkeen gastu berberak estaltzeko eta ezingo da diru-sarrerak sortu finantzatutako jardueretatik.
- m) **Aurrez aurreko zerbitzuak** eskualdeetara eta lurralde-erakundeetara **hurbiltzea ahalbidetuko duten mekanismoak** garatu beharko dira.
- n) APBetan egiten diren edo haiek antolatzen dituzten **jarduera guztiak irispide librekoak** izango dira **erabiltzaileentzat**.

Laguntzen zenbatekoa eta mota

Proiektu bakoitzerako eskatutako laguntzaren **gutxieneko zenbatekoa 300.000 €-koa** izango da eta **gehienekoa 410.000 €-koa**. Zenbateko hori **diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren % 80** izango da gehienez ere. (Norgehiagoka bidez).

Gehienez ere **bi proiektu** finantzatu dira lurralde bakoitzeko.

Eskaeran aurkeztu beharreko dokumentuak

1. **Eskabide elektronikoa.** Red.es-en egoitza elektronikoa gaitutako inprimakia.
2. **Proiektuaren memoria.** Red.es-en egoitza elektronikoa argitaratuko den "Proiektuaren Memoria Dokumentua" txantiloia erabili beharko da.
3. **Hirugarrenetikiko akordioak.** Diruz lagundu daitezkeen proiektuaren memorian aipatu diren hirugarrenekin egindako akordio guztien kopia digitalizatua.
4. **Informazio ekonomikoa.**

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

- Onuradunek **proiektuaren gauzatzearen zati bat azpikontratatu ahal izango dute.** Azpikontratazio horrek **ezingo du** diruz lagun daitezkeen proiektuaren zenbatekoaren **% 70 gainditu.**
- Deialdiaren Oinarrien II. Eranskinean diruz lagun daitezkeen gastuen jarraibideak eta mugak ezartzen dira, Oinarri Arautzaileetako 8. artikuluan ("Diruz lagundu daitezkeen eta ezin daitezkeen gastuak") ezarritakoaz haratago.
- Deialdiaren Oinarrien IV. Eranskinean, azpikontratazioei buruzko jarraibideak eta mugak ezartzen dira, Oinarri Arautzaileetako 7. artikuluan ("Azpikontratazioak") ezarritakoaz haratago.

Intereseko beste alderdi batzuk

Laguntzen bateraezintasuna:

- Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak izango dira diruz lagun daitezkeen gastu bererako gainerako diru-laguntzekin, edozein administraziok edo erakunde publikok emandakoak direlarik ere, nazionalak zein Europar Batasunekoak.
- Diru-laguntzen zenbatekoak ez du diruz lagundutako jardueraren kostua inola ere gaindituko.